

Biguriako garbitoki-iturria



Irakurketa Erraza

Nolako da garbitokia?

Ez dakigu zein den garbitegi hori eraiki zen data zehatza. 1700. urte inguruan izan zela uste dugu.

Hau Biguriako garbitoki-iturria da:



Garbitokiaren forma

egoera desberdinengatik

2 aldiz aldatu behar izan da.

Horietako bat garbitegia zegoen tokian

errepide bat egin zutelako izan zen

eta bi zatitan moztu behar izan zuten.

Zertarako erabiltzen zen garbitokia?

- Ura hartzeko, Biguriako herrira eramateko eta horrela edan ahal izateko.
- Garbitokiko iturritik animaliek ura edan zezaten.
- Herriko emakumeak eta haurrak garbitoki honetan elkartzen ziren haien gauzei buruz hitz egiteko.
- Arropa garbitzeko.
Emakumeak garbitokira saskiak arropa zikinez beterik joaten ziren.
Errautsak ere eramaten zituzten hauek arropa zuriagoa jartzeko balio baitzuten.

Nola heldu zen ura Biguriako herrira?

Orain dela asko
herrira heltzen zen ura
mendiko iturrietatik hartzen zen
eta etxeetara botila erraldoiekin eramaten zen.

XX. mendeko erdialdean,
hau da, 20. Mendeko erdialdean,
ura iturritik Biguriako etxeetara eramateko
obra bat egin zen lehen aldia izan zen.

Horrela, herrian bizi ziren emakumeek
ez zuten haien botila erraldoiekin
iturrietaraino joan behar
ura haien etxeetara eramateko.

